

# Soziobiologia.

## Azalpen biologikoen lilura

**Gaiak Argitaletxea**

**Egilea: Iker Iraola**

**Arloa: Soziologia**

**Webgunea: <http://www.gaiak.net>**

**2012/06/10**

Gizakion jardunaren oinarriak azaltzerako garaian, gizarte-zientziek kultura azpimarratzen dute, modu orokorrean esanda. Hau da, gure ekintza sozialen eta, gizarteak behatzerakoan, munduko eremu batetik bestera gertatzen diren desberdintasunen arrazoiak kulturen bilatu behar direla aldarrikatzen da. Badago, hala ere, kulturaren eragin hori zalantzan jartzen duenik, edo, beste modu batean esanda, kulturaren oinarri biologikoak azpimarratzen dituenik. Ideia hori, oro har, nahiko arrotza egiten zaio errealitatea gizarte-zientzien betaurrekoekin behatzera ohituta dagoenari; baina egia da, halaber, mota horretako azalpenek nolabaiteko zabalpen eta arrakasta izan dutela azkenaldian.

Bada, ideia horretan sakontzen du soziobiologiak. Jakintza arlo horren arabera, gizakion jarreraren oinarriak genetikoak dira. Hots, gure izaeran inguruak edo jaiotzetik bizi dugun sozializazioak baino, eragin handiagoa omen dute geneek. Berez, soziobiologia biologia eta soziologia konbinatzen dituen paradigma teorikoa da, eta bere helburua gizakion ezaugarri kulturalak geure ezaugarri biologikoetatik abiatuz aztertzea da. Zentzu horretan, beste hainbat diziplinaren ekarpena ere jasotzen du, etologia, antropologia, biztanleria-genetika eta abarrena. Hala ere, soziobiologia arlo gatazkatsua da; izan ere, bere planteamenduen aurkako kritikak ugariak dira, eta soziologiatik ukatu egiten da berekiko lotura: soziologoentzat, oro har, soziobiologia biologiaren adar bat da, gizakion izaera soziala –eta, beraz, kulturala– gutxiesten duena, gainera.

Soziobiologia, jakintza arlo berezitu moduan, 1975ean jaio zen, E.O. Wilson biologo estatubatuarrak *Soziobiologia: Sintesi berria* liburua argitara eman zuenean. Lan horrek zalaparta handia eragin zuen, eta hasieratik bertatik ikamika ugari bide eman zien. Wilsonnek, diziplina berri bat *sortu* baino gehiago, ordura arte eztabaida iturri ziren hainbat gai (altruismoa, sexuan oinarritutako diferentziak, oldarkortasuna...) bildu zituen, guztiei azalpen biologiko bat emateko. Horrela definitu zuen zientzialariak jakintza arlo berria: “biztanleria-biologia eta eboluzioaren teoria antolakuntza sozialera hedatzea”. Wilsonekin batera, soziobiologiari loturiko beste egile batzuk, polemikoak hauek ere, Richard Dawkins etologoa (*Gene berekoia*, 1976), Steven Pinker psikologo esperimentalak edota Pierre van den Berghe (nazionalismoa soziobiologiatik abiatuz ikertzeagatik ezaguna) dira, beste askoren artean.

Soziobiologia biologiaren teoria eboluzionistatik elikatzen da, Charles Darwinen *Espezieen jatorria* liburuan (1859) zabaldutako ideien ildotik, hortaz. Ikuspegi

horrek hautespen naturalaren ideia azpimarratzen du, zeinaren bidez izaki bizidunak beren ingurunera egokitzen diren. Gizakiak, aitzitik, kulturak (jakintzak, arauak, balioak, teknologia) sortu zituen ingurura egokitu ahal izateko eta, ondorioz, inguruneari emandako erantzunak ez daude ezaugarri biologikoek guztiz determinaturik. Kultura sortzerakoan, gizakiak ingurunera egokitzeko hainbat eta hainbat modu eratu ditu, eta horrek azaltzen du zergatik gizakia munduko txoko gehienetara egokitu den.

Soziobiologiaren ustez, kulturaren sekretuak ezaugarri biologikoetan bilatu behar dira, eta, horrela, gizakiaren jarreretan geneek duten eragina oso garrantzitsua da. Soziobiologiaren hitzekin esateko: geneek, bizirauteko, organismoak (animalienak zein gizakienak) erabiltzen dituzte. Geneei halako garrantzia aitortu nahi izateak soziobiologia hainbat planteamendu *bitxi* defendatzera eraman du, eta bere aurkako kritikak ugaritu dira, aldi berean. Esaterako, gizakion bizitza sozialaz aritzeko, “gene konformistez” edota “gene altruistez” hitz egin izan dute.

## **Gizarte-zientzien ukapena**

Soziobiologiaren sortzaile Wilsonek soziologiaren aurka ekin zuen 1975ean argitara emandako liburuan bertan. Bere aburuz, soziologia “biologiaren atal” bilakatu behar zen, eta horrela definitu zuen gizarte-zientzia hori: “jokabide sozial ororen oinarri biologikoen azterketa sistematikoa”. Hortaz, jokabide sozialen (eta hortik eratorritako egitura zein erakundeen) benetako oinarria biologikoa bada, soziobiologoek defendatu bezala, gizarte-zientziek ez dute inolako zentzurik; izan ere, existitzen ez den ikerketa objektu bat (gizartea, eta soziala den guztia) sortu besterik ez dute egiten, soziobiologiaren ustez, beti ere.

Soziologiaren eta, oro har, gizarte-zientzien ikuspegitik, aitzitik, soziobiologia biologiaren barruan sailkatu behar da, eta ez biologia eta soziologiaren arteko jakintza arlo moduan.

## **Kritikak**

Soziobiologiak kritika ugari jaso ditu, agerian geratu den bezala. Kritika hauek bi multzo handitan bil daitezke. Batetik, soziobiologiaren arrazoibideen arriskuak azpimarratzen dituztenak ditugu. Izan ere, egoera sozialei azalpen biologikoa emanez gero, errealitate horiek aldatu ezin daitezkeela defendatzen da, aldi berean. Horrela, soziobiologiaren ekarpenek arrazakeria edota patriarkatua bezalako errealitate sozialak *naturalizatzea* (naturalak balira bezala tratatzea) ondorio izan dezaketela salatu izan da. 1970ko hamarkadaren bukaeran, adibidez, *Science for the People* AEBetako elkarteak, Vietnamgo gerraren aurkako zientzialariak biltzen zituena, gogor egin zuen Wilson eta soziobiologiaren aurka, beren ustez *zuri*en nagusitasuna edota gerrak justifikatzeko argudio genetikoak ematen zituztelako.

Kritiken bigarren multzoaren arabera, soziobiologiak ez du oinarri enpiriko nahikorik, hau da, bere teoriak frogatzeko froga eta ikerketa zuzen nahikorik. Kritika hori ez zaio hizpide dugun arloari soilik egiten, baina, soziobiologiari dagokionez, haren ekarpenen zientifikotasuna zalantzan jartzen da, eta izan dezakeen emaitza ideia iradokitzaileak sortzera mugatzen da.

Diziplinaren *aitak*, Wilsonen, 1970eko hamarkadan, soziobiologiak kulturaren oinarri biologikoak "aurki" argitara emango zituela adierazi zuen. Errealitatean, baina, soziobiologiak ez du halako aurkikuntzarik egin, eta ika-mika ugariren iturburu izaten darrai.